



# EZKER MARXISTA

## LANGILERIA ETA GAZTERIAREN MOBILIZAZIOAK ESKUINA AZPIRATU DU NBerekin edo gabe, itzul daitezela tropak berehala!

**GERRA ETA TERRORISMOAREN LAKRA SOILIK GIZARTEAREN TRANSFORMAZIO  
SOZIALISTAREN ALDEKO BORROKAREKIN EZABATU DAITEKE**



Martxoaren 11ko Madrilgo atentatu bortitzetik (berrehun hildako eta mila zauritutik gora eragin dituen) igandeko hauteskundeetako PPren porrot itzela arte izandako gertakariak, berriro ere erakusten dute etengabeko aldaketazko egoera ezegonkorrean sartu garela. Atentatu terroristek eragindako konmozioa izanda ere, izugarritzko masa mobilizazioa sortu da hurrengo egunetan, kalean lehenengo eta botoa ematerakoan geroago, PPren zortzi urteko gobernuari amaiera eman zaiolarik behingoz.

### Gobernu erreakzionario eta gezurtia

Ekainaren 20ko greba orokorrean, Prestige ontziaren hondamendian, Irakeko gerran eta beste hainbatetan argi

geratu izan da PPren mesprezu eta gezurrezko jokabide koldarra; bide horretan aurrera eginda, ez du inolako lotsarik izan atentatuaren ardurari buruzko informazioa manipulatzeko orduan. Tragediaren heinak sortutako minari eta tentsio sozialari muzin eginik, PPk ez zuen inolako arazorik izan atentatua ETari leporatzen jarraitzeko, interes elektoralak bultzaturik. Azken urteotan gobernuak eta bereziki Aznarrek kanpaina pozoitsua eraman du aurrera euskaldun antza duen edozeren kontra, eta Kataluniako ezkerrearen garaipenaren ostean, baita katalan usaia duen ooren kontra. Iruñako okin baten hilketak argi adierazten du eskuinak kontzienteki sortu duen giroa azken urteotan.

### Agortu da langileen pazientzia

PP terrorismoaren gaiarekin soilik sentitu da gustura, baina arazo horren parte izan da hain juxtu PP, inperialismo amerikarraren interesekiko obediente eta espainiar abertzaletasunik erreakzionarioenaren ordezkari beti. Ez bakarrik ez delako terrorismoaren arazoa konpontzeko kapaz, baizik eta bere politikak arazoa areagotu egiten duelako. Martxoaren 11ko atentatuekiko jarrerak jendearen pazientzia agortzen bukatu du. Gobernuak ezin izan zuen ezkutatu Irakeko gerra eta okupazio inperialistatik jasotako odolezko uzta izan dela gertatutako sarraskia. Ezin izan du saihestu langileriak eta gazteriak jaikitzerakoan egindako

indar itzela, azken urteotan hainbat aukeratan sumatu ahal izan dugun indarra.

## Masa mugimenduaren indarra

Hauteskunde hauetan azpimarratu beharreko gauza nagusia langileria eta gazteriarren partehartzea da. PPren gobernuarekiko gordetako amorrua ezkerren aldeko boto masiboarekin adierazi da. PPK botoak galdu baditu ere, ez da hori izan bere porrotaren zergati nagusia; eskuinak ere masiboki mobilizatu du bere hautesleria. Baina hauteskunde hauetan ezkerren oinarri sozial eta elektoral ere mobilizatu egin da, horixe da ezberdintasuna. Ez da egia, beraz, zenbait analistek dioten bezala PSOEn botoa “espekto politiko guztitik” etorri dela. Ezkerrek langileriarren mobilizazioari ezker irabazi du.

Ezkerren garaipen garbiak ezeztatu egin du guztiz PSOE beraren zuzendaritzaren tesia, aldaketa elektoral “zentroko” moderazioari esker lortuko zena zioena. Milioika langile eta gazteren klase-sentimendu jatorrari esker lortu da PSOEn garaipena. Gobernuarekiko mobilizazio eta kritika giroak hainbeste denbora behar izan badu hauteskundeetan islatzeko, ezkerren zuzendariak giro horrekin konektatzen jakin ez dutelako da.

## Egoera politiko berria

Orain egoera politiko berria irekitzen da. Gobernu berriaren aldeko partiduek bi abantaila dituzte: Parlamentuan gehiengo nagusia izatea (PSOE, IU eta ERCK Kataluniako aliantza errepika dezakete) eta langile eta gazte mobilizatuen bultzada. Eta bultzada hori ikaragarri indartuko litzateke PSOEn zuzendariak lehenbailehen iragarriko balute Irakeko tropen itzulera — NBERen honespenearekin edo gabe, okupazioak inperialista izaten jarraitzen du—, LOU eta LOCEaren ezabapena, Plan Hidrologikoaren bertan behera uztea, Dekretazoaren hondarren eliminazioa Andaluziako landetan, ontzioletako langileen aldarrikapenen asetzea, eta nazio arazoak betikotu eta eskubide demokratikoak arrisku bizian jarri dituzten hainbat neurriren indargabetzea.

Ezinbestean, burgesia eta bere ordezkari politikoak, eskuina, hauetako edozein neurriren kontra agertuko litzateke, bere interesak arriskuan jartzen dituen heinean. Politika “arduragabea” dela esango lukete, “ez dagoela dirurik”. Errealitatean, Aznarren etaparen ikur izan diren eraso sozialen politikaren erroak krisian dagoen sistema kapitalistarengan daude. Garai honetan, ez bakarrik Espainian baizik eta mundu osoan, aberats eta

boteretsuentzat berebizikoa dena (irabazia, kapitala) langileriantzat ezinbestekoa denarekin kontraesanean sartzen da, hau da, lanpostu duina eta kalitatezko osasun eta hezkuntza sistema.

## Kapitalismoaren aurka borrokatzeko antolakuntza

Ezkerren zuzendariak azken urteetatik eta munduko beste gobernu ezkerrien esperientziaz lezio garrantzitsu bat ikasi behar dute: ezin zaiela burgesiaren interesei eta langileei aldi berean zerbitzatu. Horixe bai dela utopikoa. Eskuina bai konturatu da eta horregatik dauka halako jarrera arroa eta mundu osoko langileekiko erasokorra. Bere dominazioa eta pribilegioak mantentzeko, ekonomikoki gero eta sakrifizio gehiago eskatzeaz gain, zalantzan jartzen dituzte eskubiderik oinarritzkoenak. Bere dominazioa gordetzeko, kapitalismoak gerrarantz eta herrien arteko gorrotorantz bideratzen gaitu.

Hala ere, guztiz posible da lanpostu eta soldata duinezko gizarte bat, osasun eta hezkuntza publiko kalitatezko eta dohainikakoarekin gizarte guztiarentzat, guztiek kulturaz eta aisiaz trazarik gabe goza dezaketen gizartea, ingurugiroa deuseztatzeko beharrik gabe eta populazioaren gehiengo zapaldu bizi gabe. Dena da posible gizateriaren garapenak sortutako baliabideak ez badira parasito gutxi batzuen esku gelditzen, Banka eta aberastasun-sorrerako bide nagusiak langileen kontrol demokratikopean nazionalizaturik badaude, modu horretan gizartearen gehiengoaren interesean planifikatu ahal izateko ekonomia modu demokratikoan.

Horregatik, gaur inoiz baino gehiago, aukeratu beharra dago sozialismoaren eta zarpailkeriaren artean. Terrorismoarekin, gerrekin, bazterkeriarekin, prekariotasunarekin, geure konkista sozial eta demokratiko guztien desegitearekin amaitu ahal izateko modu bakarra sistema kapitalistaren kontrako borroka da, gizartearen transformazio sozialistaren aldeko borroka. Horregatik berebizikoa da langileriak eta gazteriak erakutsitako indar hori guztia antolatzea, korronte iraultzaile bat indartzea lantoki, institutu eta fakultate guztietan.

### EGIZU BAT GUREKIN!

Interesik baduzu geure ideiak sakonago ezagutzeko, Ezker Marxista zabaltzeko edo gurekin bat egiteko, bidali zeure datuak (izena, helbidea, herria, telefonoa eta emaila) [ezkermarxista@wanadoo.es](mailto:ezkermarxista@wanadoo.es) helbidera edo deitu telefonoz

## ANTOLATU ZAITEZ ETA EGIZU BORROKA EZKER MARXISTA KORRONTE IRAULTZAILEAREKIN!

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

• Gasteiz: 945 231 202 • Bilbo: 944 790 381 • Donosti: P. Ku. 1.662, P.K. 20080 • Iruña: 659 119 174  
[www.ezkermarxista.org](http://www.ezkermarxista.org) — [ezkermarxista@wanadoo.es](mailto:ezkermarxista@wanadoo.es)